

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Iragarki jabetza publikoa ibilgailuak sartzeari, aparkamendua erreserbatzeagatik, terrazak jartzeagatik okupatzeari dagozkion erroldak onetsi eta dagozkion edota publizitate-hesiengatik hirigintza-lizentziagatik tasak kobratzea.

Zenbait udal tasari dagozkion ordainarrazpenen erroldak onetsi dituzte 2025eko urtarrilaren 21eko alkatetza dekretuen bitartez, hain zuzen ere, honako hauei dagozkienak: Ibilgailuak Garajeetara espaloian zehar sartzeko udal jabari Publikoaren okupazioagatikok Tasa; Aparkaleku-Erreserbarena; Taxi-Geltokiko Aparkaleku-erreserbarena; Bide Publikoa Okupatzearena (Terrazak) eta Publizitate-hesiengatik hirigintza-lizentziagatikok Tasa.

Jendaurreko egiten da hori, Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 100.3 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, eta horren arabera hamabost eguneko epea irekitzen da; epe hori bestalde, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo biharamunean, hasiko da kontatzen; modu horretan, interesatuek dosierra aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak egiteko aukera izan dezaten; espedienteari dagokionez esan, hori, Udal honetako Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Departamenduan, egongo dela.

Halaber, Zerga Bilketarako Foru erregelamenduen 15. artikuluan eta hurrengoetan erabakita dagoenaren arabera, ondorengo zergak ordaintzera beharturik dauden zergadunak jakinean jartzen ditugu, hots, Ibilgailuak Garajeetara espaloian zehar sartzeko udal jabari Publikoaren okupazioagatikok Tasa; Aparkaleku-Erreserbarena; Taxi-Geltokiko Aparkaleku-erreserbarena; Bide Publikoa Okupatzearena (Terrazak) eta Publizitate-hesiengatik hirigintza-lizentziagatikok Tasa, ezen 2025eko ekitaldiko Erroldari dagokion kobrantza, borondatezko epean, hurrengo era horretan egingo dela:

Ordaintzeko epea

2025eko martxoaren 3etik maiatzaren 5era arte, biak barne. Helbideratutako ordainagiriak kontuan kargatzea: 2025eko maiatzaren 5ean.

Ordaintzeko lekua eta modua

Ordainketa egiteko Finantza-erakundeak	— Abanca — Caja Rural de Navarra — Kutxabank	— Eskudirutan, Bezeroaren Kontuan Zordunduta edo Kutxazain automatikoetan
	— Banco Sabadell	— Bezeroaren Kontuan Zordunduta edo Kutxazain automatikoetan
	— Laboral Kutxa	— Bezeroaren Kontuan Zordunduta
	— Caixabank	— Kutxazain automatikoetan
Ordainketa helbideraketaren bidez egiteko agindua	— Bilketa Atalean telefono, edo e-mail bidez, edo Herriarren Informazio eta Arretarako Bulegora etorrira	
	— Fidantza Erakunde Laguntzailean, aldizkako zerga bat ordaintzean	
Internet bidezko ordainketa	— http://sede.basauri.eus	— Basauriko Udaleko web orrian sartuta, jasotako ordainketa-gutunarekin, eta «Egoitza Elektronika – Nire Ordainketa» aukera erabilita — Ordainketa Erakunde Laguntzaileen on-line bankuaren erabiltzailearekin edo ordainketa txartelarekin. Edo beste edozein Finantza Erakunderen ordainketa txartelarekin, Erakunde Laguntzaile ez izan arren. Edo bizum-en bidez.

Ettxera bidalitako ordainketa-gutuna jaso ez arren, berdin-berdin ordaindu beharko da zerga-zorra. Ordainagiria edukiko ez bazenu, eskatu Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan



(HAZ). Helbideratzea aldatuko bazenu, horren berri eman iezaiozu Zerga Bilketako Bulegoari 2025eko apirilaren 25ean baino lehen.

Epe horretan ordainketarik egin ez duten zergadunei premiamendu bidez ordainaraziko zaie, dagozkion errekarquak aplikatuta.

Horixe azaldu nahi izan da jendaurrean, jendeak jakin dezan eta hura bete dadin.

Basaurin, 2025eko urtarrilaren 21ean.—Ogasun, Kontratazio eta Ondare Arloko Ordazkaria, Berta Montes Beltrán